5811

EBAZPENA, 2008ko urriaren 3koa, Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeei Lanbide Heziketako heziketa-zikloak modu partzialean irakasteko 2008-2009 ikasturterako emandako diru-laguntzak aldatzen dituena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2002ko abenduaren 10eko Aginduak (2002ko abenduaren 27ko EHAA) EAEko ikastetxeei Lanbide Heziketako heziketa-zikloak modu partzialean irakasteko baimena ematea arautu eta berari dagokion finantzaketa ezarri zuen.

Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearen 2008ko martxoaren 4ko Ebazpenaren bidez (2008ko apirilaren 4ko EHAA) lehen aipatutako 2002ko abenduaren 10eko Aginduan zehazten diren diru-laguntzen 2008-2009 ikasturteko deialdia egin zen.

Hori dela eta, Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariaren 2008ko uztailaren 31ko Ebazpenaren bidez (2008ko irailaren 3ko EHAA) EAEko ikastetxeei Lanbide Heziketako heziketa-zikloak modu partzialean irakasteko 1.079.965,66 euro ematea erabaki zen. Halaber, ebazpen horren I. eranskinean diru-laguntza hori jasoko duten ikastetxeak zeintzuk diren eta dagokien diru-kopurua zehazten dira.

Lehen aipatutako 2002ko abenduaren 10eko Aginduaren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, diru-laguntzaren lehen ordainketa Ebazpena EHAAn argitaratu eta 15 eguneko epea pasatakoan egingo da, beti ere onuradun izan diren ikastetxeek diru-laguntzari berariaz uko egin ez badiote. Halaber, 2002ko abenduaren 5eko Aginduak (2002ko abenduaren 27ko EHAA) Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialaren bidez irakastea arautzen du. Agindu horren 7. artikuluaren arabera, oro har gutxienez 10 ikasle izango dituzten taldeak baimenduko dira. Zenbait ikastetxek, ordea, ez dute aipatutako 7. artikulua bete, eta, hori dela eta, ezingo dituzte baimendutako moduluak irakatsi.

Horren guztiaren ondorioz, hau da, aipatutako arauen arabera eta aplikazio orokorreko gainerako xedapenen arabera, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariaren 2008ko uztailaren 31ko Ebazpena aldatzea. Ebazpen horren bidez ikastetxeei Lanbide Heziketako Heziketa-zikloak eskaintza partzialaren bidez irakasteko diru-laguntzak eman zitzaizkien 2008-2009 ikasturte-

5811

RESOLUCIÓN de 3 de octubre de 2008, de la Directora de Aprendizaje Permanente, por la que se modifican las ayudas económicas concedidas a los centros docentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la impartición de Ciclos Formativos de Formación Profesional en la modalidad de oferta parcial para el curso 2008-2009.

La Orden de 10 de diciembre de 2002 (BOPV de 27 de diciembre de 2002) de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, regula la autorización a los Centros docentes de la CAPV a la impartición de Ciclos Formativos de Formación Profesional en la modalidad de oferta parcial y establece su financiación.

La Resolución de 4 de marzo de 2008 (BOPV de 4 de abril de 2008) del Viceconsejero de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente procedió a convocar, para el curso 2008-2009, las ayudas previstas en la Orden de 10 de diciembre de 2002.

Como consecuencia, mediante la Resolución de 31 de julio de 2008 (BOPV de 3 de septiembre de 2008) de la Directora de Aprendizaje Permanente se resolvió otorgar 1.079.965,66 euros a los centros docentes de la CAV para la impartición de Ciclos Formativos de Formación Profesional en la modalidad de oferta parcial. Asimismo, en el anexo I de dicha resolución se indican los centros beneficiarios de la subvención y las correspondientes cantidades.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 18 de la anteriormente mencionada Orden de 10 de diciembre de 2002, el primer pago de la ayuda económica que corresponda se efectuará una vez transcurrido el plazo de quince días tras la publicación de la Resolución en el BOPV sin que los centros docentes beneficiarios hayan renunciado expresamente a la subvención. Además, de acuerdo con el artículo 7 de la Orden de 5 de diciembre de 2002 (BOPV de 27 de diciembre de 2002) por la que se regula la impartición de Ciclos Formativos de Formación Profesional en la modalidad de oferta parcial, con carácter general sólo se autorizarán grupos que dispongan al menos de 10 alumnos/as. Sin embargo, algunos de los centros docentes beneficiarios no han cumplido con el citado artículo 7 por lo que no podrán impartir los módulos que les habían sido autorizados.

Por todo ello, de conformidad con las citadas normas y demás disposiciones

RESUELVO:

Artículo único.– Modificar la Resolución de 31 de julio de 2008, por la que se otorgaban ayudas económicas para la impartición de Ciclos Formativos de Formación Profesional en la modalidad de oferta parcial para el curso 2008-2009, minorando el importe de la ayuda

rako, eta Ebazpen honen helburua diru-kopuru haiek gutxitzea da. I. eranskinean gutxipen hori izan duten ikastetxeak eta, ondorioz, jasoko dituzten diru-laguntzak zehazten dira. II. eranskinean, berriz, azkenean osatu gabe geratu diren moduluak zeintzuk izan diren adierazten da.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa jarri ahal izango da Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 3a.

Etengabeko Ikaskuntzako zuzendaria,
IRENE AZPIROZ ARTANO.

concedida a los centros docentes en las cantidades que se recogen en el anexo I. Asimismo, en el anexo II se recogen los módulos finalmente no consolidados.

DISPOSICIÓN FINAL

Contra esta resolución se podrá interponer recurso de alzada en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín del País Vasco, ante el Viceconsejero de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de octubre de 2008.

La Directora de Aprendizaje Permanente,
IRENE AZPIROZ ARTANO.

I. ERANSKINA

Ikastetxea	Hasierako diru-laguntza (2008ko uztailaren 31ko Ebazpena)	Amaierako diru-laguntza (2008ko urriaren 3ko Ebazpena)	Gutxipena / Euroak
Araba			
CPES Jesús Obrero BHIP	105.677,77	70.968,32	34.709,45
Bizkaia			
CPES Arratiako Zulaibar BHIP	42.562,00	8.000,00	34.562,00
Gipuzkoa			
CPES La Salle Berrozpe BHIP	21.334,00	8.000,00	13.334,00

II. ERANSKINA

Ikastetxea	Lanbide-arloa - Heziketa-Zikloa - Lanbide-Modulua
Araba	
CPES Jesús Obrero BHIP	Administrazioa: Administrazio eta finantzak - G.M. Giza baliabideak
	Administrazioa: Administrazio eta finantzak - G.M. Kontabilitatea eta fiskalitatea
	Administrazioa: Administrazio eta finantzak G.M. Kalitatea eta etengabeko hobekuntza
Bizkaia	
CPES Arratiako Zulaibar BHIP	Fabrikazio mekanikoa: Mekanizazio-bidezko produkzioa - G.M. Fabrikazio mekanikorako zenbakizko kontroleko makinen programazioa
	Fabrikazio mekanikoa: Mekanizazio-bidezko produkzioa - G.M. Mekanizazio-, konformazio eta muntaia-prozesuen exekuzioa
Gipuzkoa	
CPES La Salle Berrozpe BHIP	E.M.ko heziketa-zikloetako sarbidea

ANEXO I

Centro educativo	*Subvención inicial (Resolución de 31 de julio de 2008)*	*Subvención final (Resolución de 3 de octubre de 2008)*	*Minoración / euros*
Álava			
CPES Jesús Obrero BHIP	*105.677,77*	*70.968,32*	*34.709,45*
Bizkaia			
CPES Arratiako Zulaibar BHIP	*42.562,00*	*8.000,00*	*34.562,00*
Gipuzkoa			
CPES La Salle Berrozpe BHIP	*21.334,00*	*8.000,00*	*13.334,00*

ANEXO II

Centro educativo	*Familia profesional - Ciclo formativo - Módulo profesional*
Álava	
CPES Jesús Obrero BHIP	*Administración: Administración y Finanzas - G.S. Recursos Humanos*
	Administración: Administración y Finanzas - G.S. Contabilidad y fiscalidad
	Administración: Administración y Finanzas - G.S. Calidad y mejora continua
Bizkaia	
CPES Arratiako Zulaibar BHIP	*Fabricación mecánica:* *Producción por mecanizado - G.S.* *Programación de máquinas de control numérico para fabricación mecánica*
	Fabricación mecánica: *Producción por mecanizado - G.S.* *Ejecución de procesos de mecanizado, conformado y montaje*
Gipuzkoa	
CPES La Salle Berrozpe BHIP	*Acceso a C.F. de G.M.*